

KULTUR ESKUBIDEAK

Freiburgeto Adierazpena

Kultur eskubideak, Freiburgeko Adierazpena, 2. orrialdea

Kontuan hartutakoak	Argudioak
1. Oinarrizko printzipioak 2. Definizioak	Printzipioak eta definizioak
3. Kultur nortasun eta ondarea 4. Kultur taldeei aipamena 5. Kultur bizitza eskura izatea eta parte hartzea 6. Hezkuntza eta trebakuntza	Kultur eskubideak
7. Informazioa eta komunikazioa 8. Kultur lankidetzak 9. Gobernantza demokratikoaren oinarriak 10. Ekonomian txertatzea 11. Eragile publikoen erantzukizuna 12. Nazioarteko erakundeen erantzukizuna	Gauzatzea

KULTUR ESKUBIDEAK

Freiburgeko Adierazpena

- (1) *Gogoan hartuz* Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Nazio Batuen Erakundeko nazioarteko bi itunak, Unescoren kultur aniztasunari buruzko adierazpen unibertsala, eta egokiak diren gainontzeko tresna unibertsalak zein tokian tokikoak;
- (2) *Berretsiz* giza eskubideak unibertsalak, zatiezinak eta elkarmendekoak direla, eta kultur eskubideak, gainerako eskubideak bezala, giza duintasunaren nahitaezko adierazpen eta eskakizuna direla;
- (3) *Sinetsita* kultur eskubideen urraketek nortasun arloko tirabirak eta gatazkak pizten dituztela, eta horiek direla indarkeriaren, gerren eta terrorismoaren eragile nagusiak;
- (4) *Sinetsita, halaber*, kultur aniztasuna babesteko ezinbestekoa dela kultur eskubideak modu eraginkorrean jartzea praktikan;
- (5) *Beharrezkotzat joz*, gaur egun aitortuta dauden giza eskubide guztien kultur izaera aintzat hartzea;
- (6) *Pentsatuz* kultur eskubideak eta kultur aniztasuna faktore erabakigarriak direla giza eskubideen zatiezintasunean oinarritutako garapen iraunkorra zilegia eta koherentea dela bermatzeko;
- (7) *Egiaztatuz* kultur eskubideak nagusiki gutxiengoan eta herri indigenen eskubideen testuinguruan aldarrikatu dituztela, eta funtsezkoa dela modu unibertsalean bermatzea eta, bereziki, baztertutako pertsonen kasuan;
- (8) *Kontuan hartuz*, kultur eskubideek giza eskubideen sistemaren barruan zein leku duten argitzea, eskubide horien izaera ulertzea, eta haiek urratzearen ondorioak ezagutzea dela kultur erlatibismoa bultzatzea edo gizatalde eta herriak elkarren aurka jartzea saihesteko modurik onena;

(9) *Kontuan hartuz*, adierazpen honetan aipatzen diren kultur eskubideak zatika daudela onartuta, hau da, giza eskubideen aldeko hainbat tresnatan sakabanatuta, eta guztiak batzea beharrezkoa dela agerian egon daitezen, eta koherenteak zein eraginkorrak izan daitezen;

Hiru sektoreetako eragileei aurkezten diegu kultur eskubideen adierazpen hau, hau da, sektore publikokoei (estatuak eta haien erakundeak), zibilekoei (gobernuz kanpoko erakundeak eta irabazi asmorik gabeko beste elkarte eta erakunde batzuk) eta pribatukoei (enpresak), eskubide horiek tokian toki, nazioetan, eskualdeetan eta mundu osoan ezagutzen eta indarrean jartzen laguntzeko.

1. artikulua *(Oinarrizko printzipioak)*

Adierazpen honetan aitortutako eskubideak funtsezkoak dira giza duintasuna bermatzeko. Horregatik, giza eskubideen parte dira eta unibertsaltasun, zatiezintasun eta elkarmendekotasun printzipioei jarraiki interpretatu behar dira. Ondorioz:

- a.** Eskubide hauek bermatu egin behar dira, gizabanakoaren nortasuna definitzen duten ezaugarriak direla-eta inolako bazterketarik egin gabe (azalaren kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, sinesmen politikoak edo bestelakoak, arbasoak, jatorri nazionala edo etnikoa, baldintza edo jatorri soziala eta jaiotza, besteak beste);
- b.** Inork ez du sufritu behar edo baztertua izan behar adierazpen honetan aipatutako eskubideak egikaritzeagatik edo ez egikaritzeagatik;
- c.** Inork ezin du eskubide hauetakoren bat aldarrikatu adierazpen unibertsalean edo giza eskubideen beste tresna batzuetan aitortuta dauden beste eskubide batzuk murrizteko;

- d.** Eskubide hauek gauzatzeko muga bakarrak nazioarteko giza eskubideen tresnetan jasotzen direnak dira; estatu baten legedia edo praktikak edo nazioarteko zuzenbideak eskubide zabalagoak aitortzen baditu, adierazpen honen xedapenek ezingo dituzte eskubide horiek murriztu;
- e.** Giza eskubide bat egikaritzeak kultur egokitzapena kontuan hartzea eskatzen du, hemen aipatutako oinarritzko printzipioei jarraiki.

2. artikulua *(Definizioak)*

Adierazpen honen helburuak lortzeko, ondokoa hartu behar da kontuan:

- a.** «Kultura» hitzak bere baitan dauzka pertsona batek edo talde batek gizatasuna adierazteko bidetzat dituen balore, sinesmen, ideia, hizkuntza, jakintza eta arte alorrak, ohiturak, erakundeak eta bizimoduak. Izan ere, bitarteko horien bidez ematen die esanahia bere izateari eta garapenari;
- b.** «Kultur nortasuna» kontzeptua pertsona bakoitzak, gizabanako gisa edo talde bezala, bere burua definitzeko, eratzeko, komunikatzeko eta bere duintasuna onartutzat jotzeko erabiltzen duen kultur erreferentzia multzo gisa ulertu behar da;
- c.** «Kultur komunitatea» pertsona talde bat da; kultur nortasun komuna osatzen duten erreferentziak partekatzen dituen eta nortasun horri eusteaz gain garatu nahi duen taldea da, hain zuzen.

3. artikulua *(Kultur nortasun eta ondarea)*

Pertsona orok, gizabanako gisa edo talde gisa, ondoko eskubideak ditu:

- a.** Bere kultur nortasuna aukeratzeko eta bere adierazpideetan errespetatua izateko eskubidea. Eskubide hori pentsamendu, kontzientzia, sinesmen, iritzi eta adierazpen askatasunarekin lotuta egikaritzen da, bereziki;

b. Bere kultura ezagutu eta kultur hori errespetatua izateko eskubidea, baita gizadiaren ondarea osatzen duten askotariko kulturak ezagutu eta errespetatuak izateko ere. Honek giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak ezagutzea eskatzen du, ondare horren funtsezko baloreak baitira;

c. Kulturen adierazpide diren kultur ondareak ezagutzeko aukera izateko eskubidea, batez ere, hezkuntza eta informazio eskubideen bidez, eta bitartekoak izatea bai egungo belaunaldientzat, bai etorkizunekoentzat ere.

4. artikulua (*Kultur komunitateei aipamena*)

a. Pertsona oro aske da kultur komunitate batekin edo gehiagorekin identifikatzeko edota ez identifikatzeko, baita aukera hori aldatzeko ere, eta mugak ez dira horretarako oztopo izango;

b. Ezin da inor behartu bere borondatearen aurka kultur komunitate bateko kide sentitzera, ezta kide bihurtzera ere.

5. artikulua (*Kultur bizitza eskura izatea eta parte hartzea*)

a. Pertsona orok dauka, gizabanako gisa eta talde gisa, kultur bizitza eskura izateko eta modu askean parte hartzeko eskubidea, eta libreki hautatutako bideen bitartez egin ahalko du. Mugak ez dira horretarako oztopo izango.

b. Eskubide honek zera esan nahi du, nagusiki:

- Aukeratzen duen/dituen hizkuntzan/hizkuntzetan adierazteko askatasuna, bai eremu publikoan bai pribatuan;
- Adierazpen honetan aitortutako eskubideei jarraiki, kultur praktika propioak gauzatzeko askatasuna, baita kultur bitartekoen balioztapenari lotutako bizimodua egiteko ere, bereziki, ondasun eta zerbitzuen erabilpenari, ekoizpenari eta hedapenari dagokienean;
- Ezagupenak eta kultur adierazpideak garatzeko eta partekatzeko, ikerketak abiatzeko eta sormen moldeez eta haien onurez baliatzeko askatasuna.

- Beren kultur jardueraren fruitu diren lanekin lotutako interes moralak eta materialak babestuak izateko eskubidea.

6. artikulua *(Hezkuntza eta trebakuntza)*

Hezkuntza eskubidearen esparru orokorrean, pertsona orok, gizaki gisa edo talde gisa, eskubidea du, bizi osoan, oinarrizko hezkuntza beharrei erantzungo dieten eta kultur nortasuna osoki garatzea ahalbidetuko duten hezkuntza eta trebakuntza jasotzeko, betiere, gainerakoen eskubideak eta kultur aniztasuna errespetatzen badira. Eskubide honek honakoa biltzen du bere baitan, batez ere:

- a. Giza eskubideak ezagutza eta ikastea;
- b. Norberak bere hizkuntzan eta beste hizkuntza batzuetan ikasteko eta irakasteko askatasuna, baita bere kulturari eta beste kulturei buruzko jakintza hartzeko eta emateko ere;
- c. Gurasoek, beren sinesmenei jarraiki, seme-alaben hezkuntza morala eta erlijiosoa bermatzeko duten eskubidea, betiere, haurrei gaitasunak garatu ahala aitortutako pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna errespetatzen baldin badira;
- d. Publikoak ez diren hezkuntza erakundeak sortzeko, zuzentzeko eta baliatzeko askatasuna, betiere, hezkuntzari buruzko nazioarteko oinarrizko arau eta printzipioak errespetatzen badituzte, batetik; eta, bestetik, Estatuak, nazioartean aitortutako hezkuntza eskubideetan oinarrituta, nazio barruan derrigortzen dituen gutxieneko arauak.

7. artikulua *(Informazioa eta komunikazioa)*

Adierazpen askatasunerako eskubidearen eremu orokorrean (arte adierazpena, iritzi eta informazio askatasuna, eta kultur aniztasunaren errespetua barne hartzen ditu), pertsona orok du eskubidea, gizabanako gisa edo talde gisa, informazio aske eta askotarikoa jasotzeko, eta informazio horrek bere kultur nortasuna osoki eta modu askean garatzen laguntzeko. Betiere, besteen eskubideak eta kultur aniztasuna errespetatu beharko dira. Mugak ez dira oztopo izango eskubide hori egikaritzeko, eta eskubide horren oinarriak ondokoak izango dira, bereziki:

- a. Informazioa bilatu, jaso eta zabaltzeko askatasuna;

b. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia guztiak erabiliz, norberak aukeratutako hizkuntzan edo hizkuntzetan askotariko informazioan esku hartzeko eta ekoizten edo zabaltzen laguntzeko eskubidea;

c. Kulturei buruzko informazio okerrei erantzuteko eta, hala badagokio, zuzenarazteko eskubidea, betiere, adierazpen honetan jasotzen diren eskubideak errespetatuz gero.

8. artikulua (*Kultur lankidetzak*)

Pertsona orok, gizabanako gisa edo talde gisa, bitarteko demokratikoak erabiliz, eskubidea dauka honako funtzioak betetzeko:

- Kide den komunitateetako kultur garapenean parte hartzeko;
- Bere kultur eskubideei eragiten dieten erabakiak hartzeko, indarrean jartzeko eta ebaluatzeko;
- Kultur garapen eta lankidetzan aritzeko, maila guztietan.

9. artikulua (*Gobernantza demokratikoaren oinarriak*)

Adierazpen honetan jasotzen diren eskubideak errespetatzeak, babesteak eta gauzatzeak betebeharrak eragiten dizkio pertsona orori eta talde orori. Hiru sektoreetako (publikoa, pribatua eta zibilak) kultur eragileek elkarreragiteko eta, beharrezkoa denean, ekimenak abiatzeko erantzukizuna daukate, batez ere, gobernantza demokratikoaren esparruan, eta helburuak ondokoak dira:

a. Kultur eskubideen errespetua zaintzea, eta adostasun eta partaidetza moduak garatzea, haiek gauzatu ahal izatea bermatzeko, batez ere, aukera gutxiago daukaten pertsonen kasuan (haien egoera sozialagatik edo gutxiengoa direlako);

b. Informazio egokia jasotzeko eskubidea modu elkarreragilean gauzatzea ziurtatzea, gizarte, ekonomia eta politika arloko eragile guztiek hartu ahal izan ditzaten aintzat kultur eskubideak;

- c.** Beren langileak trebatu eta publikoa sentsibilizatzea, giza eskubide guztiak ulertu eta errespetatu ditzaten eta, bereziki, kultur eskubideak;
- d.** Giza eskubide guztien kultur izaera ezagutzea eta kontuan hartzea, helburu jakin batekin: dibertsitatearen bidez unibertsaltasuna aberastea eta pertsona orok, gizaki gisa edo talde gisa, bere egin ditzala sustatzea.

10. artikulua (*Ekonomian txertatzea*)

Eragile publiko, pribatu eta zibilek, beren eskumen eta erantzukizun zehatzen esparruan, honako betebeharrak dituzte:

- a.** Kultur ondasun eta zerbitzuak (balorea, nortasuna eta zentzua daukate) adierazpen honetan jasotako eskubideak ez urratzeko moduan sortu, ekoiztu eta erabiliak izatea zaintzea, eta gauza bera gainerako ondasunekin ere, haiek bizimoduetan eta beste kultur adierazpide batzuetan eragin handia duten neurrian;
- b.** Kontuan hartzea ondasun eta zerbitzuen kultur bateragarritasuna askotan erabakigarria dela desabantaila egoeran dauden pertsonentzat. Txirotasunak, bakartuta egoteak edota talde baztertu bateko kide izateak eragiten dituzte desabantailak, besteak beste.

11. artikulua (*Eragile publikoen erantzukizuna*)

Estatuek eta, oro har, eragile publikoek, beren eskumen eta erantzukizunen barruan, honako betebeharrak dituzte:

- a.** Adierazpen honetan aitortzen diren eskubideak beren legedietan eta praktika nazionaletan txertatzeko betebeharra;
- b.** Adierazpen honetan jasotako eskubide eta askatasunak berdintasunez errespetatzeko, babesteko eta asetzeko betebeharra, baita eskubide horiek osoki gauzatzea bermatzeko ahal diren bitarteko gehienak erabiltzeko betebeharra ere;

- c.** Gizaki gisa edo talde gisa kultur eskubideen urraketa salatzen duen pertsona orori bitarteko eraginkorrak bermatzea, bereziki, jurisdikzionalak;
- d.** Praktikan jartze hau bermatzeko nazioarteko elkarlan bideak indartzea eta, batez ere, eskumena duten nazioarteko erakundeen barruan elkarreragina handitzea.

12. artikulua (*Nazioarteko erakundeen erantzukizuna*)

Nazioarteko erakundeek, beren eskumen eta erantzukizun zehatzen barruan, honako betebeharrak dituzte:

- a.** Beren jarduera guztietan kultur eskubideak eta giza eskubideen kultur izaera modu sistematikoan aintzat hartuko direla bermatzeko betebeharra;
- b.** Eskubide horiek tresna egoki guztietan eta kontrol mekanismoetan modu koherentean eta mailakakoan txertatuko direla zaintzeko betebeharra;
- c.** Ebaluazio eta kontrol mekanismo komun gardenak eta eraginkorrak garatzen laguntzeko betebeharra.

Freiburgen onartua, 2007ko maiatzaren 7an

«Freiburgeko Taldea» deituriko **lantaldea** da idazketaren arduraduna, eta honakoek osatzen dute:

Taieb Baccouche, Giza Eskubideen Institutu Arabiarra eta Tunisiako Unibertsitatea; Mylène Bidault, Parisko X. Unibertsitatea eta Genevako Unibertsitatea; Marco Borghi, Freiburgeko Unibertsitatea; Claude Dalbera, aholkularia, Uagadugu; Emmanuel Decaux, Parisko II. Unibertsitatea; Mireille Delmas-Marty, Collège de France, Paris; Yvonne Donders, Amsterdango Unibertsitatea; Alfred Fernandez, OIDEL, Geneva; Pierre Imbert, Europako Kontseiluko giza eskubideen alorreko zuzendari ohia; Jean-Bernard Marie, CNRS, R. Schuman Unibertsitatea, Estrasburgo; Patrice Meyer-Bisch, Freiburgeko Unibertsitatea; Abdoulaye Sow, Nuakchoteko Unibertsitatea, Victor Topanou, Unesco katedraduna, Abomey Calavi Unibertsitatea, Cotonou.

Beste hainbat begiralek eta analistak ere parte hartu dute testuaren lanketan.

Une honetan adierazpen hau babesten duten pertsonen eta erakundeen zerrenda Dibertsitatearen eta Kultur Eskubideen Behatokiko web orrian dago.

www.unifr.ch/iiedh/fr/recherches/cultural

Adierazpena atxikimendua adierazi nahi duten guztiei dago zuzenduta, eta norberaren izenean edo erakunde baten izenean egin daiteke.

Hala nahi izanez gero, atxikimendu mezu bat bidal daiteke, datu pertsonalak jarrita, eta atxikimendua norberaren izenean adieraziko den edo erakunde baten izenean egingo den zehaztuz. Ondoko helbideak daude horretarako:

Institut Interdisciplinaire d'éthique et des droits de l'homme,
13, ave. Beauregard, CH-1700 Fribourg iiedh@unifr.ch

Informazio gehiago, iruzkinak, laburpen txostenak, lan txostenak, eta ikerketa programak eskuratu nahi izanez gero, Behatokiko webgunean daude.

Zergatik da beharrezkoa Kultur Eskubideen Adierazpena?

Ikusita giza eskubideak arautzeko tresnak ugaltu egin direla eta batzuetan ez dagoela koherentziarik haien artean, beste testu bat proposatzea desegokia dela eman dezake. Alabaina, kontuan hartuta gaur egungo gerrak eta gerra eragiteko arriskua sortzen duten egoerak neurri handi batean kultur eskubideen urraketaren ondorio direla, eta frogatu denez garapen estrategia asko desegokiak direla eskubide horiek aintzat hartu ez dituztelako, zera adierazten dugu: kultur eskubideak baztertzek giza eskubideen unibertsaltasuna eta zatiezintasuna ahultzen dituela.

Duela gutxi kultur dibertsitatearen babesa garatzen hasi izana ezin da ulertu, erlatibismoa saihestu nahi bada behintzat, giza eskubideen osotasun zatiezina eta elkarmendekoaren barruan ez bada eta, zehatzago esateko, ezin da ulertu kultur eskubideen garrantzia argitu gabe.

Adierazpen honek hainbat tresnatan dagoeneko aitortuta dauden eskubideak bildu eta argitu ditu. Izan ere, tresna horietan sakabanatuta agertzen dira. Argibideak beharrezkoak dira kultur eskubideen garrantzia eta gainerako eskubideen kultur izaeraren garrantzia frogatzeko.

Proposatutako testua nazioarteko lantalde batek Unescorentzat¹ landutako egitasmo baten bertsio erabat berritua da. Talde horri «Freiburgeko Taldea» deitu zaio, Freiburgeko Unibertsitateko (Suitza) Etika eta Giza Eskubideen Diziplinarteko Institutuaren bitartez sortu delako. Adierazpena askotariko jatorri eta ezaugarrietako eragileen arteko eztabaidetatik sortu da, eta jasotzen dituen eskubideen, askatasunen eta erantzukizunen garapenean parte hartu nahi duten pertsonen, taldeen, instituzioen eta erakundeen dago zuzenduta.

¹ *Les droits culturels. Projet de déclaration.* P. Meyer-Bisch (éd.), 1998, Paris / Fribourg, Unesco, / Editions universitaires.